

BEZEROEKIKO HARREMANAK

Gure bezeroekin harremana estua izan nahi dugu; horretarako, hainbat estrategia erabiliko ditugu beraiekin harremanak estuagoak izateko.

Hasteko, merkatuaren segmentazioa aztertuko dugu; gaur egungo kirol ezagunenak edo famatuak identifikatuko ditugu, baina nagusiki zapata mota edo, zapata espezifikoak behar dituzten kirolak; adibidez: korrika, saskibaloia, mendi ibiltzeko, etab. Modu honetan, gure zapatak nolakoak izan behar diren ikusiko dugu.

Beste alde batetik, bezeroen heziketa ezagutu beharko dugu, eta horretarako, eskura dauden historiari eta kirol bakoitzaren errendimenduari buruzko informazio zehatza emango dugu eta gure webgunean eta dendetan bezeroei beren beharretarako zola egokiena aukeratzeko lagunduko diegu. Oro har, zapata edo zola pertsonalizatuaren esperientzia emango diegu gure bezeroei; modu honetan, bezeroek zola desberdinak probatzeko aukera edukiko dute eta erosi aurretik horiekin esperimentatzeko aukera emango diegu. Eta haien erabakiak zentzuzkoak izateko, gure dendetan eta web-orrian, hainbat langile izango ditugu bezeroei edozein laguntza eskaintzeko eta bezeroak gehiago informatzeko: hainbat kirolerako diseinatutako zolak dituzten zapatak eskainiko ditugu, eta jarraibide argiak eta errazak emango ditugu, bezeroek zolak aldatu ditzaten. Nolanahi ere, gure web orrian eta sare-sozialetan, hainbat bideo sartuko ditugu, zola horiek nola jartzen eta kentzen diren azalduz, bezeroei atseginagoa eta errazagoa izan dadin.

Bestalde, hainbat kirolariekin eta kirol taldeekin elkarlanean arituko gara gure zapatilak sustatzeko. Gainera, kirol ekitaldietan parte hartuko dugu, gure produktuak erakusteko eta bezeroei zapatilak benetako egoeretan probatzen uzteko. Zola mota bakoitzerako estilo espezifikoak ere eskainiko ditugu, eta aukeratutako zolak bezeroen aurreikuspenak betetzen ez baditu bezeroei beste zola motak eskainiko diegu.

Bukatzeko, gure web-orrian plataforma bat sortuko dugu, bezeroei zapatilak pertsonalizatzeko aukera emateko (zertarako, zola mota, koloreak eta beste ezaugarri batzuk hautatu dezaketen).